

IL AZALPEN PROBA • <i>Ortzadarra sutan</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Txanpon makinaren kontra zegoen beltzaranak Sonia zuen izena. Alex berarengana joan zen eta berehala atera zuen lagun artetik. Aukera gutxiago uzten zion horrela taldeak indartzen zuen hipokrisiari. Maskarak zailagoak ziren jartzen. Eta jolasa zuzenagoa zen.

–Sonia zara, orduan? –neskak baietz adierazi zion–. Aupa. Ni Alex. Oso begirada interesgarria daukazu.

Beste egoera batean, beste pertsonaren batekin, barre egingo zukeen Soniak – bazekien lotsagabea izaten izan behar zuenean–. Barre egin eta ziurrenik popatik hartzera bidali. Edo jolasean hasi. Kaskamotz hark, ordea, zerbait zeukan. Txantxetan ari ez zelako aura modukoa edo. Besoan tatuaturik zeraman pirata-banderari begira geratu zen neska. Baina ez zen hori. Alexek begietan zeraman benetako tatuajea. Kainen estigma suz zizelkaturik eramango balu bezala.

Soniak begirada jaisten baizik ez zuen asmatu.

–Eskerrik asko.

Segundo gutxi behar izan zituen erabakitzeke mutil hura ezagutu nahi zuela.

IL AZALPEN PROBA • <i>Ortzadarra sutan</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Haritz ur ertzera hurbildu zen eta bere isla aztertu zuen.

–Auskalo –hausnartu zuen–. Agian norberak bere bidea jorratzen dik, edo agian patu mugatu bat zaukak gutako bakoitzak eta, orduan, egiten dugun edozein gauza ondo zagok. Akatsik ez horrela –eskua uretan sartu zuen pentsakor–. Arrain txiki bat hurbildu zitzaion jakin-minez, baina berehala irten zen ziztu bizian; esku neurrigabe hura ez zen ona jateko.

–Bai. Baina nik magiarekin jarraitzen diat. Beharbada bizitzak gutxi batzuetan irekitzen dik berarenganako atea, eta une horietan aprobetxatu beharra zagok, aukera betiko galdu nahi ez baduk. Amaigabeko istorioan bezala. Benetan sinestea ezinezkoa izanda ere, ederra duk.

–Hi, Imanol, zertara zatorrek hori guztia? Gustura hagoela esango nitek. Zeozer gertatu zaik, ezta?

Berealdiko irribarrea egin zuen Imanolek.

–Pisua zakaagu.

–Zer? –Haritz bueltatu egin zen, ezustez. Bere eskuak, uretatik irtetean, goitik behera zipriztindu zizkion prakak–. Ez adarrik jo. Pisu bat lortu al duk?